


MKT eta ZKH

MKT



Kirolari batek 3 egunetik behin egiten du korrika eta 5 egunetik behin igeri. Gaur bi kirolak egin baditu, hemendik zenbat egunetara egingo ditu bi kirolak berriro lehen aldiz? Zenbatero egiten ditu bi kirolak?

- 3ren multiploak: 3, 6, 9, 12, **15**, 18, 21, 24, 27, **30**, 33, 36, 39, 42, **45**, 48, 51,...
- 5en multiploak: 5, 10, **15**, 20, 25, **30**, 35, 40, **45**, 50, 55, 60,...

3 eta 5en multiploa komunak: **15**, 30, 45,... (hemendik 15,30,45,.. egunetara egingo ditu bi kirolak)

$\text{mkt}(3,5)=15$ denez...

- 15 egun barru egingo ditu lehen aldiz bi kirolak
- 15 egunero egingo ditu bi kirolak

Nola kalkulatu mkt-a?

mkt (30,40)

1. PAUSUA

Bi zenbakiak deskonposatu

30 | 2
15 | 3
5 | 5
1

40 | 2
20 | 2
10 | 2
5 | 5
1

$$30 = 2 \cdot 3 \cdot 5$$

$$40 = 2^3 \cdot 5$$

2. PAUSUA

Faktore komunak (2) eta ez komunak (3 eta 5) hartuko ditugu, berretzaile **handienarekin**.

$$2^3 \cdot 3 \cdot 5$$

Horixe da kalkulatu nahi genuen mkt-a.

$$\text{mkt}(30,40) = 2^3 \cdot 3 \cdot 5 = 60$$

ZKH

30 sagar dauzkagu eta 40 madari. Fruta kopuru bereko kaxetan sartu nahi ditugu, sagarrak madariekin nahastu gabe! Garraio kostuak murrizteko ahalik eta kaxa gutxien erabili nahi ditugu. Zenbat kaxa beharko ditugu?

Sagarrak eta madariak kaxetan banatu behar ditugu. Ahalik eta kaxa gutxien erabili nahi baditugu, kaxa horietan ahalik eta fruta kopuru gehien sartu beharko da!

- 30en zatitzaileak: **1, 2**, 3, **5**, 6, **10**, 15, 30
- 40 ren zatitzaileak: **1, 2**, 4, **5**, 8, **10**, 20, 40

30 eta 30en zatitzaile komunak: **1,2,5,10** (banaka,2naka,5naka eta 10naka sailka ditzakegu frutak)

$zkh(30,40)=10$ denez...

- 10naka sailkatuko ditugu frutak. Sagarrez betetakoko 3 eta madariz betetako 4 izango ditugu.

Nola kalkulatu zkh-a?

zkh (30,40)

1. PAUSUA

Bi zenbakiak deskonposatu

30 | 2
15 | 3
5 | 5
1

40 | 2
20 | 2
10 | 2
5 | 5
1

$$30 = 2 \cdot 3 \cdot 5$$

$$40 = 2^3 \cdot 5$$

2. PAUSUA

Faktore komunak (2 eta 5) hartuko ditugu soilik, berretzaile **txikienarekin**

$$2 \cdot 5$$

Horixe da kalkulatu nahi genuen zkh-a.

$$\text{zkh}(30,40) = 2 \cdot 5 = 10$$